

## **15/2007 LEGEA, uztailaren 3koa, Lehia Defendatzekoa.**

### **1. KAPITULUA - Debekatutako jokaerak**

#### **1. artikulua. Kolusiozko jarrerak.**

1.- Debekatuta dago taldeko akordio, erabaki edo gomendio oro, edo hitzartutako praktika edo nahita paraleloa den jarduera oro, horien helburua ondorengo bada edo izan badaiteke: merkatu nazional osoan edo zati batean lehia eragotzi, murriztu edo faltsutzea; bereziki ondorengo akordio edo erabaki-motak egongo dira debekatuta:

a) Salneurriak edo beste merkataritza- edo zerbitzu-baldintza batzuk zuzenean edo zeharka finkatzea.

b) Produkzioa, banaketa, garapen teknikoa edo inbertsioak mugatu edo kontrolatzea.

c) Merkatua edo hornigaien iturriak banatzea.

d) Merkataritza- edo zerbitzu-harremanetan, baldintza ezberdinak ezartzea baliokideak diren prestazioentzat, eta horrek lehiatzaile batzuei desabantailak eragitea beste batzuen aurrean.

e) Kontratuak hitzartu ahal izateko beste prestazio osagarri batzuk eskaintzeko baldintza jartzea, baldin eta prestazio horien ezaugarriengatik edo merkataritzako ohiturengatik hori eskatzeak ez badu zer ikusirik kontratuen helburuarekin.

2.- Erabat deusezak izango dira 1. paragrafoan xedatutakoaren arabera debekatuta dauden akordio, erabaki eta gomendioak izanik, lege honetako salbuespenen artean ageri ez direnak.

3.- 1. paragrafoko debekua ez dute bete beharko akordio, erabaki, gomendio eta praktika batzuek, baldin eta horien bidez ondasun eta zerbitzuen produkzio, merkaturatze eta banaketa hobetzen laguntzen bada, edo aurrerabide tekniko edo ekonomikoari laguntzen badiote; horretarako ez da alde aurretiko erabakirik behar izango, ondorengo kasuetan:

a) Kontsumitzaile edo erabiltzaileei lortzen diren onuretan bidezko modu batean parte hartzen uztea.

b) Interesa duten enpresei helburuak lortzeko ezinbestekoak ez diren mugak ez jartzea, eta

c) Aurreikusten diren produktu edo zerbitzuen zati handi baten inguruan lehia desagerrarazten ez uztea, parte hartzen duten enpresei.

4.- 1. paragrafoko debekua ez dute bete beharko akordio, erabaki edo gomendio orokor jakin batzuek, edo hitzartutako praktika nahiz nahita paraleloak diren praktika batzuek, baldin eta Europar Batasuneko erregelamenduetan zehaztutako xedapen jakin batzuk betetzen badituzte, hain zuzen ere Europako Erkidegoaren Tratatuaren 81. artikuluko 3. paragrafoa akordio, enpresa-elkarteen inguruko erabaki edo hitzartutako praktika jakin batzuei ezartzeari buruzkoak. Eta hori guztia baita jokaera horiek Europar Batasuneko estatu kideen arteko merkataritzari eragiten ez diotenean ere.

5.- Era berean, Gobernuak, errege-dekretu bidez, artikuluko honetako 3. paragrafoa jokoera jakin batzuei ezartzea erabakitzeko aukera izango du, alde aurretik Lehia Defendatzeko Kontseiluaren eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren txostena jaso ostean.

#### **4. artikulua.** Legeak salbuetsitako jokoerak.

1.- Lehiaren defentsaren arloko xedapen komunitarioen behin-behineko aplikazioaren kalterik gabe, kapitulu honetako debekuak ez zaizkio aplikatuko lege baten aplikazioaren ondorio diren jokoerei.

2.- Kapitulu honetan aipatzen diren debekuak lehia murrizten duten egoera jakin batzuei ezarriko zaizkie, hau da, administrazioaren beste ahalmen batzuk gauzatzearen ondoriozkoak direnei, edo aginte publikoen edo enpresa publikoen jardueraren ondoriozkoak direnei, eta lege-babesik gabe burutzen badira.

#### **5. artikulua.** Garrantzi gutxiagoko jokoerak.

Lege honetako 1. artikulutik 3.era artekoan aipatzen diren debekuak ez zaizkie ezarriko garrantzi gutxi izateagatik lehiari modu nabarmenean eragiteko gauza ez diren jokoerei. Erregelamendu bidez zehaztuko da zein diren garrantzi gutxiagoko jokoerak zehazteko irizpideak, eta beste batzuen artean, merkatu-kuota zein den hartuko da kontuan.

#### **6. artikulua.** Aplikaezintasuna adieraztea.

Interes publikoak hala eskatzen duenean, Lehiaren Batzorde Nazionalak, ofizioz hartutako erabakiaren bidez, eta alde aurretik Lehia Defendatzeko Kontseiluaren txostena izanda, 1. artikulua akordio, erabaki edo praktika jakin bati ez zaiola aplikatuko erabakitzeko aukera izango du, bai 1. paragrafoan eskatzen diren baldintzak betetzen ez direlako, bai artikuluko bereko 3. paragrafoan aipatzen diren baldintzak betetzen direlako. Aplikaezintasunaren adierazpena lege honen 2. artikuluan esaten direnekiko ere egin ahal izango da.